



Uribelebarieta *etxebizitza*

Aldacrak: Uribe
Ahozkoa:



43° 9' 32"

2° 34' 11"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería denominada Uribe-lebarieta... situada en la cofradía de Murgoitio de la anteiglesia de Berriz, ocupa un área superficial con inclusión del antusano o basurero de treinta y seis estados o un área y treinta y siete centiáreas..."
DJE 6/154 or. (1895)

Baserri honen inguruko lehen arrasto dokumentala 1704koa da, urte horretako su-errol-dan *Lubarrieta* izena agertzen baita baserri honi erreferentzia egiteko. Argi dago akatsa dela, eta fonetikoki nahiko berdintsua den *Lebarieta* izenarekin nahastu zutela. XVIII. mende amaieran, aldiz, *Uribe Labaita* agertzen zaigu (1779), eta XIX. mendean zehar, guztiz arrunta da *Uribelebarieta* izena aurkitzea. XX. mendean, *Uribe* izena nagusituko da, eta horrela ezagutuko dute Berrizko herritar gehienek.

XX. mende akabera berriztatu zuten, XIX. mende amaieran jaso zuten etxea. *Beñandikoaren (Ikus Beñandikoa)* antz handia du, atea kontrako aldean egon arren. Honetan moduan, erdialdea indartzeko joera argia da, nahiz eta balkoi bakarra eduki lehenengo solairuan. Behekoan, aldamenetan eta ganbaran leihoak ditu, txikitxoak goiko alboetakoak izanik, ohikoa den eran. Harlangaitza usatu zuten, jatorriz luzitu eta zurituta egongo zena, kantoietan eta leihoen ertzetan izan ezik, oso kalitateko oneko hareharriz egin baitzituzten.

toponimia

Badirudi 1799an ageri den etxe-izen honetan Uribe toponimoa eta Lebarieta deitura ditugula. Nahiz eta Uribe jauregia (**Ikus Uribetxenagusia**) Okangon dagoen, behin baino gehiagotan Murgoitio kofradian kokaturik ageri da, XVIII. mendeko su-errol-detan.